



Haur eta Gazte Literatura

Euli bat dut bihotzean
Leire Bilbao

Irudiak: Maite Gurrutxaga
Elkar, 2013

Euli bat dut bihotzean

LEIRE BILBAOK proposamen interesgarria eskaintzen digu liburu honetan. Izenburutik bertatik nabari daiteke fantasia ukitua, testuaren poetikotasuna, istorio ezberdin baten aurrean gaudela.

Baina lehen inpresio hori egiaztatu egiten da orrietan barneratu ahala. Lehen kapitulua, laburra liburu-ko gehienak bezala, bi hizkik osatua da ia: ZZZZZ eta sssss, loaren hizkia lehena, bueltaka dabilen eulirena bigarrena. Eta hizki horiekin batera lau esaldi besterik ez kapitulu osoan, hizki horien artean: “Dena beltza dago”, “Isiltasuna entzuten da”, “Euli bat da gauean” eta “Nire belarri inguruan bueltaka, mundu bolari bueltaka balebil bezala”.

Gorka dugu istorio bitxi honetako narratzailea, mutiko ezberdina da, eta kapituluetan zehar, hainbat narratzailearen bidez (Gorka bera, haren ama, hirugarren pertsona) nola sentitzen den, nola bizi den, egiten duena jakingo dugu ikuspuntu ugaritatik, baina bitxiena, duarik gabe, Gorkarena bera-rena da. Euli sentitzen den mutikoa baita Gorka, euli bizitza duena: “—Ez dago inor ispiluan!!! —egin du oihiu Gorkak—. Ikustezina bihurtu naiz!!! Nola da posible? (...) hori da ispilu alu honek islatzen duen guztia. Ene, ez da hori guzti-guztia. Baita euli txiki beltz bat ere... Neu naiz ispiluak islatzen duen euli txiki beltz hori. Amaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!! —egin du oihiu Gorkak”.

Eta ipuinean aipatzen den Kafkaren *Itxura-aldaketa* liburuan gertatu bezala, hemen ere intsektu bilakatzen da protagonista. Gorka euli izango da, euli sentituko. Eta puntu horretatik abiatuta eulien inguruko kontakizun laburrak ditugu, euliak baino familiakoak direla protagonista. Horrela amonaren heriotzaren ondoren haren bihotza aitona jarri ziotela jakingo dugu, eta aitona sofara lo egitean ahoa zabaltzen duela, euliak harrapatzeko tranpa bailitza; edo euli batek katilua ukitu ondoren Mirenek nola aldatzen dion katilua Gorkari, edo... Baina kontatzen dituen istoriotxo horiek berez duten balioa baino gehiago elkarren artean sortzen duten armiarma sare baten moduko sentsazioa du irakurleak, giro batean harrapaturik dagoenarena, harik eta auzoko berriaren etorrerak horrekin guztiarekin hautsi kontakizunaren azken aldean, amaiera irekia eta itxaropentsua eskainiz.

Ederra da istorioa, are ederragoa Maite Gurrutxagaren irudi suabeekin, pastel koloreen bidez eta espazioekin jolastuz eginiko irudiekin, ohiko este-reotipoetatik ateratzen diren protagonistak aurkeztu-ten dizkigun ipuin interesgarri eta gomendagarria, zalantzarik gabe. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**



NEIGHBOR
Ura Patrikan - CD



ANGEL UNZU &
TXUMA MURUGARREN
14 ABESTI eta... - CD



BIDE ERTZEAN
77 - CD



BERAT FUENTES &
BRENDAN DONNELLY
Te-Uhinak - CD



CAPSULA
Solar Secret - LP/CD



LA JODEDERA
Karibe Kantauri Kantari - CD



LOS GALERNA
Akelarre - LP/CD



PAUL SAN MARTÍN
Paul's Mood - CD



JOSEBA B. LENOIR
Tenpesta - EP



ANEIKA ARA
Aneika Ara - CD

**GAZTELUPEKO
HOTSAK**
WWW.HOTSAK.COM

Errabal, 23 - 20590 SORALUZE
tel. +34 943 753 016
fax +34 943 750 139
gaztelupeko@hotsak.com



IGOR ARZUAGA
Experience - CD



IGOR ETA NI
Llegara - CD